



Ebazpena, Justizia Administrazioako zuzendariarena, zeinaren bidez behin-behineko atxikipenaren, zerbitzu-eginkizunen eta ordezkapen bertikalaren bitartez lanpostuak aldi baterako betetzeko prozedurarako deialdia egiten duena; eskaintako lanpostuak Amurrio, Azpeitia, Balmaseda, Bergara, Durango, Gernika-Lumo, Getxo, Irun eta Tolosako barruti judizialak bulego judizialak, udalerrietako justizia-bulegoak eta horien elkarrekinak eta erregistro zibileko bulego orokorretako berriei dagozkie.

Justizia Administrazioako zuzendariaren 2025eko uztailaren 31ko Ebazpenaren bidez onartu ziren Amurrio, Azpeitia, Balmaseda, Bergara, Durango, Gernika-Lumo, Getxo, Irun eta Tolosako barruti judizialak funtzionarioak adskribatzeko irizpideak, eta egokitze-prozesuaren garapena.

Ebazpen horren 8. artikuluan ezartzen denez, behin-behineko atxikipenean dauden funtzionarioak LPZ berriko lanpostu batera atxikiko dira behin-behinean.

Era berean, ebazpenaren 9. artikulua aurreikusten du behin betiko destinoa duten funtzionarioen egokitzapena amaitu ondoren, eta bitarteko langileak izendatu aurretik, bete gabe geratzen diren lanpostuak zerbitzu-eginkizunetan edo ordezkapen bertikalean bete ahal izango dira, egokitze-prozesua egiteko unean egoera horretan (hau da, zerbitzu eginkizunetan edo ordezkapen bertikalean) eta dagokion herrian dauden funtzionarioek.

Prozedura hau ebazteko, eta aipatutako ebazpenaren arabera, lehentasun-ordena honi jarraituko zaio:

1. Behin-behineko atxikipenean dauden funtzionarioak.
2. Zerbitzu-eginkizunetan dauden funtzionarioak.
3. Ordezkapen bertikalean dauden funtzionarioak.

Lehentasun-ordena bakoitzean, lehentasuna izango dute behin-behineko atxikipenean, zerbitzu-eginkizunetan edo ordezkapen bertikalean antzinatean handiena duten langileak. Berdintasuna gertatuz gero, maila altuena duenak izango du lehentasuna.

Horiek horrela, honako hau

EBAZTEN DUT

1. artikulua.- Behin-behineko atxikipenaren, zerbitzu-eginkizunen eta ordezkapen bertikalaren bidez lanpostu berriak aldi baterako betetzeko prozeduran parte hartzerako karrerako funtzionarioen zerrenda argitaratzea; lanpostuak Amurrio, Azpeitia, Balmaseda, Bergara, Durango, Gernika-Lumo, Getxo, Irun eta Tolosako barruti judizialak bulego judizialak, udalerrietako justizia-bulegoak eta horien elkarrekinak eta erregistro zibileko bulego orokorretako berriei dagozkie (I. eranskinean).

2. artikulua.- Behin-behineko atxikipenaren, zerbitzu-eginkizunen eta ordezkapen bertikalaren bidez lanpostuen zerrenda argitaratzea; lanpostuak Amurrio, Azpeitia, Balmaseda, Bergara, Durango, Gernika-Lumo, Getxo, Irun eta Tolosako barruti judizialak bulego judizialak, udalerrietako justizia-bulegoak eta horien elkarrekinak eta erregistro zibileko bulego orokorretako berriei dagozkie (II. eranskinean).

3. artikulua.- Funtzionarioek 2026ko urtarrilaren 13tik 14era bitartean, biak barne, egin beharko dute plaza-eskaera, jarraian adierazten den estekan:

Donostia kalea, 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ
r-humanos@euskadi.eus



<https://www.euskadi.eus/lanpostuak-aldi-baterako/akoplamendua/web01-tramite/eu>

Behin-behineko atxikipenen dauden eta eskaerarik aurkezten ez duten langileak ofizioz atxikiko ditu Justizia Administrazioako Zuzendaritzak lanpostu berri batera.

Zerbitzu-eginkizunetan edo ordezkapen bertikalean dauden langileak, prozesu honetan parte hartzeko eskaera aurkezten ez badute, edo, eskatuta ere, lanposturik lortzen ez badute, behin betiko destinoa duten lanpostuan hasi beharko dira lanean.

4. artikulua.- Adierazitako epean, funtzionarioek alegazioak egin ahal izango dituzte fase honi buruz. Alegazioak lehen aipatutako estekaren bidez aurkeztu beharko dira.

5. artikulua.- Ebazpen hau izapide-egintza da, ez du gaiaren mamiari buruzko erabakirik hartzen, eta ez dio amaiera ematen prozedurari.

Ondorioz, ezin da horren aurkako errekurtsorik jarri, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112.1 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteizen, sinadura elektronikoaren egunean.

MARIA DOLORES MOVILLA RIVAS
JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO ZUZENDARIA